

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

EKO-LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

araba álava
foru aldundia diputación foral



ARABA HELBURU

Ekaina 2022

Araba Helburu ZER DA?

Araba eraikitzeko prozesu partekatua da, eta **Diputatu Nagusiaren Kabinetea** du buru. Arabako Foru Aldundiak lurraldeko gobernua gizarteari etengabe irekitzeko duen konpromisoa adierazten du.

Elkarlanean **ikuspegiak partekatzeko eta ekimenak identifikatzeko aukera** moduan proposatzen da. Horretarako, gizarte, ekonomia, enpresa eta teknologia arloko Arabako 200 eragilek baino gehiagok parte hartuko dute.

Araba Helburu, funtsean, Aldundiak lurraldearen etorkizunarekin duen konpromisoaren adierazpenik handiena da. Horrez gain, gaur egun dagoen ziurgabetasun handia kontuan hartuz, non erronka handiei aurre egin behar zaien, **ezinbestekoa da erkidegoak esku hartzea**, lehentasunak antolatzeko eta igarotze prozesuak bultzatzeko.

Hori lortzeko, zenbait fase proposatzen dira. Horrela, helburu nagusia da Aldundiak berak hartzen dituen erabaki politikoetan laguntzen duen gida bat eta **gobernu irekiko tresna bat** sortzea, lurraldeko enpresak, elkarteak eta erakundeak buru diren proiektuak garatzeko.

FASEAK

- 1. ERRONKA PARTEKATUAK EGITEA.** Kontsultarako gogoeta prozesua da, Arabako lehen ikuspegi partekatua izan dezagun, azken xede eta helburu multzo baten bidez. Ikuspegi horri esker, lurraldearen erronka handiak egin, eta interes partekatuko lan lerroak diseina ditzakegu..

2020ko azaroa – 2021eko urtarrila

Adituen panela

Araban bere jarduera profesionalarengatik, adimen edo gizarte arloan duten eraginarengatik hautatutako adituen panela kontsultatzea.

Eraitza:

Araban etorkizun partekatua eraikitzeko oinarrien agiria

- 2. LIDERGO TOPAKETAK.** Elkarlaneko Think Tank prozesua da, eta horren bidez, gizarte, enpresa, kultura, teknologia eta erakunde arloko eragileek osatutako lantaldeak sortzen dira. Bestalde, lantalde horiek, bereziki garrantzitsuak diren gaikako esparrutan antolatzen dira..

Hasiera batean, interes bera duten gaien arabera antolatzen dira taldeak, eta besteak beste, , **Araba Helburu oinarrien agiriaren ondorioak aztertuko dituzte, eragileek zer konpromiso dituzten adieraziko dute, eta gobernantza partekatuaren eta esperimentazioaren arloan sor daitezkeen ekimenak abian jartzen lagunduko dute.**

Eraitza:

Helburu, erronka eta aukera partekatuak

Izan dezakeen jarraipena

ELKARLANEKO SORKUNTZAK ETA ESPERIENTZIAK.

Bigarren fasean lortutako emaitzak kontuan hartuz, ekimen publiko eta pribatuak bultzatzeko prozesu bat abian jartzea baloratuko dute.

Prozesu hori, ikuspegi esperimental batetik proposatuko litzateke, lurraldeko eta Arabatik kanpoko eragileen artean elkarlaneko guneak (fisikoak eta birtualak) abian jartzeko. Gune horietan, haien errepikakortasunagatik, eskalagarritasunagatik edo Arabaren aldaketan duten eraginagatik lurraldean eragin handia izan dezaketen esperientzia berriak egin daitezke. Azken batean, Araba Helburu ekimeneko parte hartzaileek etorkizunerako proposatutako erronkak betetzea da helburua.

2. FASEKO METODOLOGIA

4 LANTALDE. Bigarren faseko edukiak adituz osatutako lantalde txikietan landu dira. Lau gai nagusi dira: (1) ekonomia eta enplegua, (2) gobernantza eta partaidetza, (3) gizarte politikak eta (4) ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak. Lantaldeak gaian adituak diren 8-10 pertsonaz osatuta egon dira.

2 SAIO. Lantalde bakoitzarekin elkarren segidako bi saio egin dira. Bi saio horietan, jorratuko zuten edukia prestatzeko, aurretik zuten materiala erabili zuten. Gutxi gorabehera bi orduko saioak izan ziren. Bi saio online izan ziren osorik; gainerakoak, mistoak, hots, bertaratu ziren eta online zeuden pertsonak aldi berean egon ziren.

1 INKESTA. Zortzi saioak eginda (bi gai bakoitzeko), landutako puntuetako batzuk osatzeko gai bakoitzarekin loturiko inkesta bat zabaldu dute. Bigarren fasean harremanetan jarritako pertsona guztiei bidali diete inkesta, azkenean saioetan parte hartu zuten ala ez kontuan hartu gabe. Horrela, guztira, 68 pertsonarekin jarri dira harremanetan.

2. FASEKO METODOLOGIA

Lau lan mahaiak aukeratzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Planaren ildo estrategiko nagusiak kontuan hartu dituzte.

**SUSPERRALDI EKONOMIKOA
ETA ENPLEGUA**

**GOBERNANTZA ETA
PARTAIDETZA**

**GIZARTE POLITIKAK
ETA HERRITARRAK**

**EKOLURRALDEA ETA
KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK**

2. FASEKO METODOLOGIA

EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK

1. SAIOA (2021/06/17)

Iraupena: 2 ordu

Helburua: erronka eta palanken gainean lan egitea, eta lurraldearen beharrak asetzen dituztela ziurtatzea.

Formatua: mistoa
(presentzialak/online)

Egitura: eztabaida irekia

Parte hartzaileak: Askotariko profileko 9 lagun; estrategia, ezagutzaren kudeaketa, zientzia eta berrikuntza, politika publiko, gobernantza eta hirigintza arloekin loturiko esparru pribatu zein pribatuko profesionalak.

2. SAIOA (2021/07/08)

Iraupena: 2 ordu

Helburua: helburuak lehenestea eta egon daitezkeen ekimenak identifikatzea.

Formatu: online

Egitura: Erronka edo palanka bakoitzari buruzko galdera zehatzak

Parte hartzaileak: Askotariko profileko 9 lagun; estrategia, ezagutzaren kudeaketa, zientzia eta berrikuntza, politika publiko, gobernantza eta hirigintza arloekin loturiko esparru pribatu zein pribatuko profesionalak.

INKESTA

Luzera: 33 galdera

Helburua: hobekuntza eta proposamen zehatzekin burutzea erronkak

Formatua: Testu kutxa irekita duten galderak

Parte hartzaileak: Proiektuan parte hartu zuten adituei 25 gonbidapen bidali zizkieten, eta osorik egindako 7 erantzun jaso ziren. Inkestak izena jarri gabe bete ziren.



ARABA HELBURU

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

**EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN
ALDEKO EKINTZAK**

17 GJH Nazio Batuen Erakundea

1 Pobrezia desagertzea 	3 Osasuna eta ongizatea 	4 Kalitatezko hezkuntza 	5 Genero berdintasuna 
6 Ur garbia eta saneamendua 	8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 	9 Industria, berrikuntza eta azpiegiturak 	10 Desberdintasunak murriztea 
11 Hiri eta komunitate jasangarriak 	12 Ekoizpen eta kontsumo arduetasunak 	13 Klimaren aldeko ekintza 	15 Lehorreko ekosistemetakoa bizitza 
16 Bakea, justizia eta instituzio sendoak 	17 Helburuak lortzeko aliantzak 	17 + 1 Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna 	

17 HELBURUEK Araba Helburu

EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK

ARABAKO 17
HELBURUEI
FORMA EMANEZ

1 INDARKERI ARIK GABE	2 HERRITAR OSOAK	3 ONGIZATE UNIBERTSALA	4 GAZTE EMANTZIPATUAK	5 ERANTZUKIDETASU NA AHULENEKIN	6 ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNGARRIA
7 EKOHIRIGINTZA ETA NATURAREN BALORIZAZIOA	8 EKINTZA KLIMATIKOAR EKIKO KONPROMISO A	9 BERRIKUNTZAN ETA EKOERANTZUKIZUN EAN OINARRITUTAKO EKONOMIA	10 I+G+B LURRALDEA	11 DIGITALIZAZIO UNIBERTSALA	12 LURRALDE OREKATU ETA POLIZENTRIKOA
13 LANKIDETZA BERDINEN ARTEAN	14 HERRITAR KONPROMETITU AK ETA PARTE HARTZAILEAK	15 ELKARLANEKO GOBERNU IREKIA	16 LURRALDE KONEKTATUA ETA KOOPERATIBO	17 ELKARTASUNA HEGOALDE GLOBALAREKIN	araba helburu 17 HELBURU

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

**EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN
ALDEKO EKINTZAK**



ARABA HELBURU

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

I+G+b arloan eginiko inbertsioa biderkatzea

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

ERRONKAK ETA PALANKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute, eta
horietatik, 4, ekolurraldearekin eta
klimaren aldeko ekintzarekin bat datoz

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketara egokitzea bultzatzea

1. Trantsizio energetiko handinahi eta bidezkoa sustatzea
2. Mugikortasun eredu jasangarri eta unibertsalean aurrera egitea
3. Azpiegitura eta ekipamenduak berritzeko bolada aktibatzea
4. Karbono hustulekuak sustatzea eta konektibitate ekologikoa indartzea
5. Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloa prestatzea, bero/hotz bolada eta lehorteen arriskuen aurrean
6. Ura babestea, etorkizunean arriskuan dagoen ezinbesteko baliabidea delako
7. Gizartearen parte harraraztea, komunikazioaren eta trebakuntzaren bidez

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea

1. Ekodiseinua, berrerabiltzea eta birmanufaktura sartzeko enpresen egunerokotasunean
2. Sortutako hondakinak txikiagotzea eta haien kudeaketa hobetzea, hondakinen Europako hierarkiaren arabera
3. Tresna ekonomikoak erabilgarri jartzea, zirkularizazioa errazteko
4. Eragileen artean lankidetzaren sustatzea
5. Kontsumo ekoarduratsua sustatzea
6. Prestakuntza espezializatua eskaintzea, ekonomia zirkularraren aukerei aurre egiteko

Lehen sektorearen balio nabarmentzea

1. Lehen sektorea modernizatzea.
2. Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorearen alde egitea.
3. Elikagaien industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea.
4. Merkaturatze kanalak garatzea.
5. Bertako produktua sustatzea.

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea

1. Informazio publikoaren gardentasuna indartzea.
2. Politika publikoen diseinuan eta ezarpenean parte hartzen laguntzea.
3. Hiriko habitatek eta pertsonen ingurumenarekin duten lotura bultzatzea.
4. Lurraldeko pertsonen aniztasuna ospatzea eta nabarmentzea.
5. Pertsonen eta erakundearen proaktibitatea eta gizarte balioekin duten konpromisoa saritzea.
6. Lankidetzaren eredu publiko eta pribatuen sustatzea.
7. Euskararen erabilera bultzatzea gizarte talde guztietan.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

I+G+b arloan eginiko inbertsioa biderkatzea

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

1

El Klima aldaketa XXI. mendeko erronkarik handiena izango da, eskala orokorrean. Bistakoa da klima sistemaren berotzea. Atmosfera eta ozeanoa berotu dira, elur eta izotz bolumenak txikiagotu dira, itsas maila igo da eta berotegi efektuko gas kontzentrazioa handitu da.

Hori guztia muturreko fenomeno klimatikoak (bero eta hotz boladak, muturreko euriteak eta lehorteak) ekartzen ari da, eta pertsonengan eta ekosistemetan eragin handia. Atmosferara egindako berotegi efektuko igorpenak ez badira gelditzen, ohikoagoak eta bortitzagoak izango dira.


Europako Itun Berdearen helburua da 2050. urterako karbono igorpenen neutraltasuna lortzea. Helburu horrek, gaur egun energia erabiltzeko eta kudeatzeko duten eredu aldaketa handiak egitera behartuko ditu Europako herrialdeak eta haien eskualdeak, sektore

guztietan. Gasteizko hiriak bat egin du bere itun berdearen bidez Europako konpromiso horrekin, eta Arabako Aldundia bere estrategia ere prestatzen ari da: "Klima Araba 2050". Kasu guztietan hauek dira lehentasunak:


- Ingurumena errespetatzen duten teknologietan inbertitzea.
- Industriari laguntzea, berritu dadin eta bere produkzio prozesuak alda ditzan.
- Garraio publiko eta pribatuko sistema garbiagoak, merkeagoak eta osasungarriagoak zabaltzea.
- Energiaren sektorea deskarbonizatzea.
- Ikuspegi energetikotik, eraikinak eraginkorragoak izan daitezela bermatzea.

17
HELBURUETARA
KO EKARPENA
2030

EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
**EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK**



Karbono isurtzeen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan. 1990-2018



EAEko energiaren azken kontsumoa, Lurralde Historikoen arabera (tep/biztanleko). 2000-2017

Eusko Jaurlaritza

2

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

Berotegi efektuko gasen igorpena % 26,2 jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan 2007. urtetik. Horri esker, energia kontsumoak behera ere egin zuen, baina igorpenak baino nabarmen gutxiago (% 17,3 jaitsi zen).


Arabako berotegi efektuko gasen igorpenen % 73 energia kontsumotik dator. Biztanleko batezbestekoa zertxobait handiagoa bada ere, behar termikoa handiagoa delako, bilakaera gainerako Lurraldeen antzekoa izan da.

Mugikortasunarekin, industriako eta egoitza sektoreko prozesu termiko batzuekin nagusiki loturiko petrolioak da gehien kontsumitzen den energia.

Hori horrela, Europako Helburuak betetzeko, Klima 2050 euskal estrategiak eta KLIMA ARABA 2050 estrategiak (gauzaten ari dira) lehentasunezko zat jotzen dute energiaren eta garraioaren

sektorea deskarbonizatzea, egoitzetako energiaren erabileraren eraldaketa alde batera utzi gabe. Horrek, aurrezten, eraginkortasuna handitzen eta elektrifikazioan lagunduko du maila guztietan.

Klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko ikuspegitik, naturan oinarritutako irtenbideen (azpiegitura berdeak eta ekosistemen funtzionaltasun anitza) eta klima aldaketaren aldagaia lurraldearen kudeaketan barne hartzearen alde egin dute. Halaber, ezinbestekoa izango da berrikuntza eta ezagutza eragile guztiei helaraztea, datozen urteetan Araban gertatuko diren klima aldaketaren arazoari irtenbide eraginkorrak emateko eta kostu eraginkorrak bilatzeko.



Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategian jasotzen diren isurpenak murrizteko helburuak
Eusko Jaurlaritza

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

CBi saioen emaitza gisa, bi ondorio garrantzitsu nabarmendu dira, trantsizio energetikoa eta klima aldaketara egokitzea bultzatzearen inguruan.

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa **ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

SEKTORE ESPARRUA

Trantsizioetan handinahiak eta liderrak izateko beharra aipatu da.

Horretarako, garrantzitsutzat jo dute sektore bakoitzerako diagnostiko sendo eta pertsonalizatua izatea, sektore guztien abiapuntua ez delako bera.

URA, ARRISKUAN DAGOEN BALIABIDE GISA

Uraren kudeaketari erreparatu behar zaiola nabarmendu da. Arabak ura esportatzen du, eta funtsezkoa da Euskadiren hornidurarako.

Etorkizunean gerta daitekeen ur eskasia lehentasunezko erronka da.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

4

Klima aldaketaren aurkako borrokan aritzen den Araba, haren eraginei erresilientziaz egokitutakoa, eta trantsizio energetikoarekin konpromisoa duena.

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa ERALDAKETARAKO PALANKAK

- Trantsizio energetiko handinahi eta bidezkoa sustatzea. Energia sortu, kontsumitu eta kudeatzeko gaur egungo ereduaren eraldaketan inbertitzea, energia deskarbonizatuaren kontsumoa murriztua izan eta herritar guztien eskura egon dadin.
 - Mugikortasun eredu jasangarri eta unibertsalean aurrera egitea. Berotegi efektuko gas igorpenik gabeko mugikortasun ereduak sustatzea, ibilgailu elektrikoak eta garraio publikoak baliatuz.
 - Azpiegitura eta ekipamenduak berritzeko bolada aktibatzea. Etxebizitza, hiriko ekipamenduak eta industria eremuak birdiseinatzea eta modernizatzea, energia aurrezteko eta energia kontsumo gutxiko eremuak sortzeko.
 - Karbono hustulekuak sustatzea eta konektibitate ekologikoa indartzea.
- Ahalmen ekosistemikoaren balioa nabarmentzea, irtenbide naturalak sartzea hiri plangintzan eta lurraldeko biodibertsitatea babestea.
- Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloa prestatzea, bero/hotz bolada eta lehorteen arriskuen aurrean. Arriskua txikiagotzea eta lurraldea leheneratzeko gaitasuna handitzea.
 - Ura babestea, etorkizunean arriskuan dagoen ezinbesteko baliabidea delako. Ura oinarrizko ondare unibertsala da, eta klima aldaketak arriskuan jar dezake etorkizunean. Horrenbestez, babestu behar dugu, lurralde osoan eta lurraldetik kanpo edonork eskura dezan.
 - Gizartea parte harraraztea, komunikazioaren eta trebakuntzaren bidez. Behar adinako tresna eta irizpideak ematea biztanleei erabakiak har ditzaten.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

5

Lau palanka nabarmentzen dira::

Trantsizio energetiko handinahi eta bidezkoa sustatzea

Mugikortasun eredu jasangarri eta unibertsalean aurrera egitea

Ura babestea, etorkizunean arriskuan dagoen ezinbesteko baliabidea delako

Gizartea parte harraraztea, komunikazioaren eta trebakuntzaren bidez

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa PFUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK

Trantsizio energetiko handinahi eta bidezkoa sustatzea

Garrantzitsutzat jotzen da lurraldean trantsizio energetikoa antolatzea, eta eragile guztiekin adostea. Lehen sektorean eta ingurumeneko babes eremuetan sortuko diren gatazkei aurreratu behar zaie.

Besteak beste, energia fotonvoltaikoa, eolikoa eta biomasa nabarmentzen dira.

Mugikortasun eredu jasangarri eta unibertsalean aurrera egitea

Hiri esparruan, mugikortasunaren elektrifikazioaren alde egitea proposatzen da, tokialdaketak aldatzeko.

Enpresa esparruan, paradigma aldatzea eta enpresako mugikortasuna planifikatzea proposatzen da, ohikoak ez diren beste baliabide batzuk kontuan hartuz.

Ura babestea

Ura kudeatzearen garrantzia nabarmendu da, lurraldean ezinbesteko baliabidea delako.

Horretarako, etorkizunean egon daitezkeen egoerak kontuan hartzen dituen kudeaketa proposatu da.

Gizartea parte harraraztea

Ikuspegi sozial bat izatearen garrantzia nabarmendu da. Bestalde, herritarren prestakuntza, trebakuntza eta erantzunkidetasuna ezinbestekotzat jotzen dira, ohiturak aldatzeko ahalmen handia daukatelako.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

6

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa **EKIMEN INTERESGARRIA**

1. AUKERA: KOMUNITATE ENERGETIKOAK

Zentralizatuta ez dauden komunitate energetikoen sortzea, 0km energia berriztagarriak erabiltzen dutenak. Horrez gain, energiaren aurrezteaz eta haren erabilera eraginkorraz jabetu behar dute.

Adibidea:

[Lasierra tokiko
komunitate
energetikoa](#)

2. AUKERA: EUSKADI MAILAKO MUGIKORTASUN ESTRATEGIA

Mugikortasunari buruzko plana ezartzea elkarrekin, ibilgailu pribatuaren erabileraren pizgarria kentzearen, garraio publikoaren iraupena eta maiztasuna hobetzearen eta garraio eskaintza homogeneizatzaren alde egiten duena.

GAKOA: lehenestea hezkuntza, kontzientziazioa eta gertaera zientifikoak, herritarrek jasagarritasunaren inguruan interesa izan dezaten. Horrez gain, komunitate energetikoei dagokienez, instalazio handi eta txikien alde egitearen garrantzia nabarmentzen da, izan ere, eragin positiboa dute.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

I+G+b arloan eginiko inbertsioa biderkatzea

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

1

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea **ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA**

Biztanleriaren hazkundera eta materialen eta energiaren kontsumoaren hazkundera presio handia egiten ari dira baliabide naturalen gainean. Horrela, jasagarriak ez diren ingurumen eraginak izaten ari dira.

Ekonomia jarduerari dagokionez, besteak beste, kostuen eta horniduren arriskua gero eta handiagoa izatea ekartzen ari da. Hori gertatzearen arrazoi nagusietako bat da orain arte garatzen egon diren atera, ekoitzi, erabili eta bota eredua.

Arazoaz jabeturik, laugarren industria iraultzaren alde egin dute Europatik. Horrela, bilakaera teknologiko esanguratsua ekartzeaz gain, hazkunde ekonomikoaren eta baliabide naturalen erabileraren arteko lotura desegin ere egingo da. Hori lortzeko, funtsezkoa izango da enpresa egitura osoan zehar negozio eredua aldatzea.

Ekonomia zirkularrak produktu, material eta baliabideen bizi zikloa mantentzen du ahalik eta denbora gehien. Horrela, hondakinen sorrera gutxienera murrizten da eta behin eta berriz sartzen dira baliabideak produkzio zikloan. Ondorioz, balio bizitzaren amaierara heltzen diren produktuen gehieneko balioa lortzen da.


Enpresetarako, ekonomia zirkularrak hainbat aukera ematen ditu ingurumenarekin duen harremana hobetzeko. Lehiakortasuna eta jarduera dibertsifikatzeko aukerak ere handitzen ditu. Horri esker, enpresa berriak abian jartzen dira.

17
HELBURUETARA
KO EKARPENA
2030

EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

2



— C.A. del País Vasco — Unión Europea 28

Euskadiko baliabideen produktibitatearen adierazleak.
2010-2017.

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea ARABAKO EGOERA

Diotenez, ekonomia zirkularrak BPGren % 1,12 ekartzen du Euskadin, eta enplegu guztiaren % 2,08 sortzen du. Hobetzeko aukera handia bada ere, abiapuntua ona ere bada: baliabideen produktibitatea (BPG unitateko baliabideen erabilera) zertxobait handiagoa da Euskadin Europako herrialdeetan baino (28ko EB). Bestalde, EAEko ekonomia % 26 handitu da 2000. Urteetik, baina materialen kontsumoa % 25 jaitsi da.

Industria sektoreak 21 milioi tona lehengai kontsumitzen ditu urtean, eta horietatik % 77, inportatzen ditu. Hondakinen sorrera murrizteko eta materialen joera nagusien zikloak

ixteko ekonomia zirkularreko irtenbide gisa, Eusko Jaurlaritzak dio gutxi gorabehera 2.000 milioi euro aurrez lirakekeela urtero.

Industria jarduera handia denez Araban, eta Gasteizen bereziki (balio erantsi gordinaren % 32,7 industria sektorean), ekonomia zirkularreko paradigma berria ezarriko balitz, lurraldea onuradun nagusietako bat izango litzateke.

Europako Batzordeak lehenesten duen ekonomia zirkularrarekin bat, Euskadiko Ekonomia Zirkularreko 2030 Estrategiak 9 erronka handi identifikatzen ditu:

Negozio eredu zirkular berriak sor daitezela

bultzatzea.

Material (aurreratu eta berriztagarriak), prozesu eta produktueta berritzea.

Produktuen balio bizitza luzatzea.

Lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztea.

Kontsumo eredu zirkularragoa sustatzea. Elikagaien zarrastelkeria murriztea.

Plastikoen erabilera eraginkorrago sustatzea.

Hondakinen berrerabiltze, birziklatze eta berreskuratze tasa handitzea.

Bigarren mailako lehengaien erabilera areagotzea.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

3

ERRONKA EGITEA

Produkzio eta kontsumo linealeko ereduaren ordez zirkularra ezartzea

Enpresetan ekonomia zirkularreko jarduerak zabaltzea, trantsizio tresna gisa.

Produkzio eta kontsumo linealeko ereduaren ordez, zirkularitatean eta hondakinen gutxieneko sorreran oinarritutakoa jartzea.

Ekonomia zirkularren eredia sustatzea FORMULAZIOA ETA DIMENTSIOA

ERRONKAREN DIMENTSIOA

Ekonomia zirkular osoa izatea erronka handia da, eta zenbait belaunaldirengan eta herrialdeko enpresa eta erakunde guztietan eragingo du.

Arabaren erronka Euskadiko Ekonomia Zirkularreko 2030 Estrategian oinarritzen da 2030. urteari begira, eta 3 helburu ezartzen ditu urte horretarako.


% 30 handitzea materialen produktibitatea.

% 30 handitzea material zirkularren erabilera tasa.

% 30 murriztea hondakinen sortze tasa BPG unitateko.

ERRONKAREN GAUR EGUNGO EGOERARI BURUZKO IRITZI SUBJEKTIBOA.

Galdetutako pertsonak 2,60 puntuko balorazioa eman dute (5etik) erronkaren gaur egungo egoerari buruz.



Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

4

Bi saioen emaitza gisa, bi ondorio garrantzitsu nabarmendu dira, ekonomia zirkularreko eredua orokortzearen inguruan.

Ekonomia zirkularren eredua sustatzea **ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

AUKERA

Ikuspegia enpresa egituraz harago hartu beharko litzatekeela nabarmendu da, baliabide eta hondakinei ere erreparatzeko. Enpresa eta enpleguak sortzen dauden aukera nabarmendu dira.

LEHIATZEKO GAITASUNA

Aplikatzen den sektoreetan ekonomia zirkularra elementu bereizlea izan daitekeela nabarmendu da. Aitzindariak eta erreferenteak izateko aukera dago, orain hasten badira.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

5

Produkzio eta kontsumo linealeko ereduaren ordeztuz, zirkularitatean eta hondakinen gutxieneko sorreran oinarritutakoa

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea **ERALDAKETARAKO PALANKAK**

- **Ekodiseinua, berrerabiltzea eta birmanufaktura.** Ekodiseinu, berrerabiltze eta birmanufaktura jarduerak zabaltzea, enpresen lehiakortasun faktore gisa.
- Sortutako hondakinak txikiagotzea eta haien kudeaketa hobetzea, hondakinen Europako hierarkiaren arabera. Zaborte girako bideratutako hondakinak kentzea eta hondakinen hierarkiaren printzipioen arabera kudeatzea.
- Tresna ekonomikoak. Eragileei emandako pizgarri ekonomikoak bultzatzea, hondakinak produktu eta lehengai berri gisa sortzea, berrerabiltzea eta birziklatzea saihesten duten jokabideen onerako.
- Eragileen arteko lankidetzak. Zirkularitatea errazten duen elkarlaneko ekonomia baterako baldintzak ezartzea.
- **Kontsumo ekoarduratsua.** Herritarren ingurumenarekiko kontzientzia handitzea eta kontsumo eta jokabide jasangarriak ekartzen dituzten politikak gara daitezela lanean jarraitzea.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

6

Bi palanka nabarmentzen dira:
Ekodiseinua, berrerabiltzea eta birmanufaktura
Kontsumo ekoarduratsua

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea **PFUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK**

Ekodiseinua, berrerabiltzea eta birmanufaktura

Administrazioek edo mendeko erakundeek gida bat eman behar dutela nabarmendu da, interesa duten eta hobetzeko aukerak dituzten erakundeen gaur egungo egoera ebaluatzen duena.

Horrez gain, kontrol eta kuantifikazio sistemak eskatzen dira, hala nola, karbono aztarna, edo jarduketa protokoloak fabrikazio prozesuetarako eta antzekoetarako.

Kontsumo ekoarduratsua

Erantzukizuna sustatu eta pedagogiaren alde egin behar dela nabarmentzen da, herritarrek eta erakundeek pentsatzeko behar duten denbora har dezaten, egunerokotasunean ohitura jasangarriak sartzeko.

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea **EKIMEN INTERESGARRIA**

1. AUKERA: HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen berrerabiltzearen eta murriztearen, zein haien balorizazio energetikoaren alde egiten duen kudeaketa proposatzea.

Horretarako, materialen trazabilitatearen alde egitea eta gaika biltzeko gaitasuna hobetzea proposatzen da.

Adibidea:

Zenbait herrialdetako planak, hala nola, [Suitza](#).

Nafarroako Erkidegoko plan berria. [Nafarroako Erkidegoko](#).

GAKOA: Prozesu parte hartzaileak sortzea, hondakinen gaia jorra dezaten, eta lurraldearen egoerara egokitzen diren eredu arrakastatsuetan oinarritzea.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

I+G+b arloan eginiko inbertsioa biderkatzea

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

1

Lehen sektorea Arabako ezaugarrietako bat da. Zerealen, patataren, erremolatxaren, eta bereziki mahatsondoaren laborantza nagusi dira, eta belaunaldi askoren euskarri nagusia izan dira. Horrela, nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza jarduerak lurraldearen % 42 hartzen du.

Industriaren indarraren, ekonomiaren tertziarizazioaren eta Gasteizko eta lurraldeko eskualde nagusien ondorioz, lehen sektorearen pisu ekonomikoa gero eta txikiagoa da.

Hala eta guztiz ere, lehen sektoreak oso sektore garrantzitsua izaten jarraitzen du Arabako gizartearentzat, arrazoi honengatik:

- Ekonomiari eta gizarteari ematen dion balioa, gizartearen zati handi bati aberastasuna eta enplegua emanez.
- Elikagai, lehengai eta premiazko produktuen hornitzailea izatea; Araban, lehen sektorea da Estatuko patata hornitzaile nagusia, eta mundu osoan arrakasta duen mahastizaintza eta


ardogintza industria nagusiaren oinarria.

- Pertsonak lurraldean atxikitzeko eta lurraldetik joatea saihesteko gaitasuna, haien bizi kalitatea hobetuz eta enpleguak sortuz. Araban, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza dira landaguneak bizirik mantentzeko eta lurralde orekatu eta anitza izateko tresna nagusiak.

Etorkizuneko ikuspegiarekin, kanpoko produktuen mendekotasuna gero eta handiagoa da, elikatze eta janzteko. Horrenbestez, gure lehen sektorearen eginkizunari buruzko gogoeta sakona egin behar dugu. Ingurumena errespetatuz (ekoizpen ekologikoa eta artisau ekoizpena), elikagaiak ekoizteak, eta haiek eraldatzea eta hurbil banatzeak (0 km-ko produktuak), beste aukera batzuk ematen dituzte landaguneetako ekonomiak indartzeko. Izan ere, enplegua eta garatzeko aukerak sortzen dira.

2

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea ARABAKO EGOERA



Lehen sektorearen ehunekoaren bilakaera, euskal ekonomiaren balio erantsi gordin osoaren gainean, lurraldeka. 1995-2019

Eustat

Araba da lehen sektoreak pisu ekonomikorik handiena duen lurraldea: balio erantsi gordin osoaren % 1,56, Euskal Autonomia Erkidego osoaren % 0,82ko batez bestekoaren aurrean.

Lehen sektoreak ekonomian duen pisuak behera egin du pixkanaka azken urteetan. Horrela, gaur egun, oso urrun dago iragan mendearen erdialdean izan zuenetik. Beheranzko joera badago ere, 2013. urtetik aurrera, lehen sektoreak ekonomian zuen eragina handitu zen, 2008. urteko krisi ekonomikoari hobeto egin ziolako aurre.

Eskualdeka, garrantzitsua da nabarmentzea sektoreak, besteak beste, Arabako Errioxan (balio erantsi gordin osoaren % 21,6), Arabako mendialdean (% 11,5) eta Arabako Haranetan (% 9,2) duen garrantzi handia.

Laborantzen arabera

nabarmentzen da:

- Mahatsa, Arabako Errioxan. 13.324 ha daude landuta, eta gutxi gorabehera 94.256 tona mahats ekoizten dituzte. Laborantza hori, ardoaren industria handiaren oinarria da, eta Europan zein munduan arrakastatsua da. Araban, guztira, 815.651 hl ardo ekoizten dira urtero (Eusko Jaurlaritzaren 2018ko datuak), eta horietatik, % 40 baino gehiago esportatzen dira. Mende hasieratik jada, Arabako Errioxako ardo esportazioak ia bikoiztu dira, eta 2019. urtean 183 milioi eurotara heldu dira.
- Zerealak. Hedadurari dagokionez, garrantzitsuenak dira. Guztira, 42.000 ha dira. Laborantzarik garrantzitsuenak dira garia (22.889 ha) eta garagarra (13.107 ha).
- Patata. Guztira 1.200 ha

landatu dira, eta horietatik, % 37,5, Araba Estatuako ekoizlerik handiena den laborantzako patatari dagokio.

Lurraldeko beste laborantza garrantzitsu batzuk dira ekilorea (2.650 ha), azukre erremolatxa (1.600 ha) eta koltza (1.035 ha). Laborantza estentsibo horiez gain, baratze eta fruta laborantzen ekoizpen nabarmena ere badu.

Abeltzaintzan nabarmentzen dira behi ustiapenak (608 ustiapen) eta ardiak (508 ustiapen). Horri esker, Idiazabal jatorri deiturako gaztak ekoizten dira.

Basogintzako sektorearen hedadura 141.656 ha da, eta horietatik, % 27,6, koniferoak dira. Bestalde, % 72, hostozabalak dira.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

3

Bi saioen emaitza gisa, bi ondorio garrantzitsu nabarmendu dira, lehen sektorearen balioa nabarmentzearen inguruan.

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea **CONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

BESTE SEKTOREEKIKO HARREMANA ETA ERAGINA

Lehen sektoreak lurraldean duen garrantzia eta elikagaien sektorearekin duen ezinbesteko harremana nabarmendu dira. Baita lurraldearen eta biztanleen osasunean duten eragina ere.

KOMUNIKAZIOA EZINBESTEKOA DA

Lehen sektoreko jardueren gaineko komunikazioa hobetzearen alde egin behar dela nabarmendu da. Mezu argiak ezartzea, biztanleengana heltzen direnak, eta egindako lana nabarmentzeko aukera ematen dutenak.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

4

Lehen sektore bat eta elikagaien ekoizpen osasungarri, seguru eta lehiakorreko industria gauzatzea, ingurumena zaintzarekin eta babestearekin bat datorrena.

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea **ERALDAKETARAKO PALANKAK**

- Lehen sektorea modernizatzea. Lehen sektorearen berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea, eta lehen sektoreak landa ingurunean duen jarduera nabarmentzea, aberastasuna eta zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituen heinean. Besteak beste, tokiko elikagaiak, aisialdia, paisaia eta kultura nortasuna ematen dizkigutela nabarmentzea.
- Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorearen alde egitea. Ardoaren lehiakortasuna indartzea, berrikuntzan, kalitatean, sustapenean eta komertzializazioan oinarrituz.
- **Elikagaien industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea.** Elikagai enpresen lehiakortasuna eta elikagaien balio katea hobetzen laguntzea, betiere elikagaien kalitatea, osasun bermea eta trazabilitate osoa zainduz.
- Merkaturatze kanalak garatzea. Nekazaritza eta elikagai produktuen komertzializazio kanal berriak egokitzea eta berritzea, kontsumo behar berriei egokitzuz.
- Bertako produktua sustatzea. Bertako produktua eta sasoikoa sustatzea. Hurbileko tokiko produktuaren salmentan laguntzea, ekoizleak kontsumitzaileengana hurbilduz.

Ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak

**Palanka bat nabarmentzen da:
Elikagaien industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea.**

5

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea **PFUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK**

Elikagaien industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea

Lehen sektorearen estrategia bultzatzeko beharrezkoak diren baliabideak ahalduntzea, suspertzea eta hornitzea. Kalitatea lehenestea, kantitatearen aldean.

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea **EKIMEN INTERESGARRIA**

1. AUKERA: ESKALA TXIKIKO NEKAZARITZA

Produktuaren kantitatearen aurrean kalitatea lehenesten duen estrategia baten alde egitea.

Banaketa partekatuko estrategia integratzea, ekoizle txikiak eskaerarekin lotzen dituztenak, garraio azpiegitura handirik behar izan gabe.

GAKOA: Arabak, lurralde gisa, bertakoak eta kalitatezkoak diren produktuak eskaintzeko duen ahalmena kontuan hartzea.



ARABA HELBURU

helburu

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN
ALDEKO EKINTZAK

araba

araba  álava
foru aldundia diputación foral